

Forjarien Kanta



Urte asko dira Eibarko kanta zaharrak biltzen hasi nintzela, eta orduan atxeman nion forjarien kanta zati batl. Mende* honen lehen partean huelgetan kantatzen omen* zen. Zati hura* «Igela» aldizkarian argitaratu zuen Peillen-ek (ikus «Igela», 1. zenbakia, 5. orrialdea, 1962.eko otsailekoa*, Paris).

Geroztik, Agustin Retenagak gehitu zeutan beste zati bat, bai- na oraintsu arte ez dut izan osatzerik. Pepe Bulunbururi eskerrak, osatu ahal izan dut; berak, pazientzia handiz, erretiroa hartuta dabilizan zaharren artean bete ahal izan du nire antzinako gogoia.

Elbartarrek, bertsogintzan jarduten dutenean, Gipuzkoako eus- karaz egin ohi dute; eta hemendik sortzen zaiku kanta honen jato- rriaren zalantza*. Egin ditugun galdeetatik, batzuen iduriz, kanta hau bertan sortua daiteke; baina, beste batzuen iduriz, Mondragoe aldetik ekarria omen da.

Eibarko lehenengo huelga 1897.ean izan zen, Kintana analen lantegitik, edo, hobeto esan, lantegiagatik sortua. Bertako gertaka- riak*, xehetasunez*, Toribio Etxebarriak, bere «Viaje por el país de los recuerdos»-en, 23-25 orrialdeetan emanak ditu (Mexiko, 1968). Beharbada gehiegizkoa litzateke orduan kantatzen zela esa- tea, baina behabada bai. Geroztik, 1913 eta 1920.ean egin ziren huelgetan bai, orain bizi diren zaharrek diotenez.

Beraz, kanta honek, ba du bere garrantzia gure sozio-historia- rako. Bertan nabari* den gogortasuna, libertade eta justiziarekin bat-batean jabetu den herriarena da, sozialismoa eta anarkismoa herriaren bidegurutzean aurkitzen ziren garaikoa. Gure historiara- ko, ez dago dudarik, baliozko agiria* dugu.

Bere doinua magnetofonoz hartua dugu, eta gaurkoz letra sol- lik* emanen dugu. Hona hemen:

Gaur forjariak lana utzita
gatoz guztioak kalera,
labeak oso Itzaldurikan
jaikera bat egitera,
maillu, burdin ta galferakoak
botarikan bazterrera;
ez degu nal guk berrido sartu
leengo tokira lanera.

Dinbill danbal golz eta gabe,

su eta kelan tartean,
sosegu eta deskantsu gabe
gure buruen kaltean;
orregatikan lanak utzita
gatoz guztioak batean.

Gora ta gora beti, gora forjariak
langille trebe zintzo da mallukaria.
Lurpera ta lurpera beti nagusial
ez digute egingo eurak nal guzia.
Ez badigu ematen arrazola gurl,
ez badigu ematen bear aña ongi,
sua emango diogu gure fabrikari
eta nagusiaren etxe guziari.

Iru babarrun jatiagatik
orrenbeste neke, pena;
erdi suldua arkitutzen da
forjariaren barrena.
Gure kontura egin ol dute
nagusiak nal dutena,
langilleen bizkarretik gizendu
dute beren poltsa dena.

Oso goizetik lanian asl
su eta kelan tartian,
dinbi ta danbal gelditu gabe
guztiz illundu artian,
errota denak puskatzen eta
osasunaren kaltian.

Ez badigu gurl jornalik aunditzen,
berrido gu ez gera lanera biurtzen;
arrazolakin degu gelago eskatzen,
ifñorgandik ez gera gu Ikaratuzen.
Ez badigu ematen arrazola gurl,
ez badigu ematen bear aña ongi,
sua emango diogu gure fabrikari
eta nagusiaren etxe guziari.

JUAN SAN MARTIN
Biltzaile eta ohargille